

Nafarroako Esaera Zaharrak. Areso.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zaharrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Areso.

- 697 *Ardi sorokoiek lagunak billatzen.*
Gizon ostatu-zaleak ere bai.
- 698 *Atal-aurreak erakusten du gure etxean zer dugun.*
- 699 *Azienda aulek, arkakoso asko.*
- 700 *Belar asko bildu dezu! Maiatz luzeak yango ditu.*
- 701 *Borondate ederra, baño etxe utsa daukegu.*
Ez daukat zer emanik.
- 702 *Buru batek milla balio, eta millek bat ez.*
- 703 *Elurretan yaioa, ta izotzetan bataiatue.*
Zikoizkerian dabillena da ola.
- 704 *Etxea bete kaiku, ta eltzera beia yeisten.*
Lau pausu ez egiteagatik zer gauzak egiten diren!
- 705 *Gaztearen burue ariñe; baña burla egitea gaizki egiñe.*
- 706 *Gezurrek anakak motzak ditu.*
Gezurra laster azaltzen da.
- 707 *Gizon ederrak askotan, ofizioa yokuan; andreak ditu kulpa guziak, itzen bat esandakoan.*
- 708 *Gizon ostatu-zalea, etxe ondatzalea.*
- 709 *Illunbetako lana, argitten lotsa.*
Illunbetako lana, askotan oker egiña edo lotsa ekartzen duena. "Gausko lana, egunsko alxia (ahalkea)" (Saraitzu).
- 710 *Izan baziñe antxume ona, ez ziñen egongo zazpi umen ama.*
Neskazar bati esana.
- 711 *Kanpoan eder, etxean beltz.*
"Kanpoan uso, etxean otso".
- 712 *Nere andreak atorra zarra, berea balu ezer ez; labatza baño beltzago*

dauka, garbitutzeko alperrez.

- 713** *Nere gizon ona, lau atorra badituzu: soñean daukazun zirkun-zarkun, egingo dizudan berria, irugarrena iya egiteko, Lakuntzan daukat azia. Or esaten zaigu zer fruitu ekartzen duten alperkeriak eta arlotekeriak.*
- 714** *Orain arrapa zak telleriko langa. Aukeran zeukan irabazbidea bere erruz galdu duenari esana.*
- 715** *Rau rau rau: kontu ona diau; Astigarrako zaldie kargatu bear diau. Guk, nik uste baño diru geiago diau. Areso-ko neskame batek, Tolosan olloak saldu ta errira zetorrela, ori kantatuz dantzari ekin omen zion.*
- 716** *Sugearen umeak, sugekumeak. Nolako gurasoak, alako umeak.*
- 717** *Txapel batekin bi buru estali nai dituenari, bik agirian gelditzen zaizkio.*
- 718** *Ume yaio, ta ume biurtu. Zartzaroan jende asko ume biurtzen, umekeriak egiten.*
- 719** *Zaietan legor, irñetan abar. Leku askotan berdintsu esaten den esaera.*